



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

PINOSOLOKO LEHIAKETAN ARAU-HAUSTE BAT EGON ZELA BERRETSI DU EAE-KO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAK

BILBO, 2016ko apirilaren 14a

EAE-ko Justizia Auzitegi Nagusiak bi epai eman ditu. Horien bidez berretsi egin du lehia askearen aurkako akordio bat egon zela ARCAIN eta AROS enpresen artean “Pinosolo auzia” delakoan. Epai horiek irmoak dira; beraz, ezin da errekurtsorik jarri horien aurka.

Epaiok berretsi egin dute LEAk kasu horretan erabilitako presuntzio-froga. Auzitegiaren esanetan, gertakariei buruz LEAk egin zuen kontakizunak badu jurisprudenzia konstituzionalak exigitzen duen ziurtasun-maila eta, beraz, ebazpena ez datza susmo, zurrumurru edo usteetan, guztiz egiaztatutako gertakarietan baizik, eta oinarritzko gertakarien eta egiaztatu nahi denaren artean lotura zehatz eta zuzena dago, giza-irizpidearen arabera.

Halaber, berretsi egin da ez zela preskripziorik egon jokabidean eta inguruabar larrigarri bat egon bazela, hau da, lehia ukitzeko ARCAIN enpresaren ahalmen berezia, lehiaketan udal-aholkulari gisa aritu baitzen.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) 89.000 eta 45.000 euroko isunak ezarri zizkien ARCAIN Ingeniería y Arquitectura, S.L. eta AROS Estudio de Arquitectura, S.A. enpresei, hurrenez hurren, lehiaren aurkako jokabideengatik. Jokabide horiek Leioako Udalak eta Leioa Kirolak enpresak deitu zuten lehiaketan egin ziren, Pinosoloko kirolgunearen proiektua idatzi, obra zuzendu eta hori egiteko lehiaketan, hain zuzen.

Udalak ARCAIN enpresa kontratatu zuen esleipena prestatzeko lanak egiteko eta, halaber, lehiaketa ebaluatzeko batzordeetan parte hartu zuen enpresa horrek. AROS izan zen esleipenduna, Viuda de Sainz enpresarekin egin zuen Aldi Baterako Enpresen Elkartearen bidez.

LEAk egiaztatutzat jo zuen lehiaketaren esleipenerako funtsezkoa zen informazioa trukatu zutela bi enpresek. Hori eginik, lehiaketako enpresen arteko lehia faltsutu zuten eta Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1.1 artikulua hautsi zuten. Artikulu horrek debekatu egiten ditu akordio oro, erabaki edo gomendio kolektibo oro, edo hitzartutako jardunbide oro, horien helburua



ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea.

LEAk frogatutzat eman zuen (eta Auzitegi Nagusiak berretsi egin du) lehiaketarako deia egin aurretik (50 milioi eurokoa zen lehiaketa) AROS enpresak prestatzeko lanen ardura eman ziola arkitektoen bulego bati eta gero ARCAIN enpresari eman zizkiola lan horiek. Esanenez, ARCAIN enpresa udal-aholkularia zen eta lehiaketako baldintzak prestatu behar zituen.

Orobat egiaztatutzat jo zen lehiaketako esleipeduna izan zen planoan ARCAIN enpresaren eskuetan egon zela lehiaketarako deia egin baino lehen (ARCAINEK egin zituen lehiaketako pleguak eta parte hartu zuen Ebaluatzeke Batzordeetan).

Lehenengo epaiak murriztu egin du ARCAIN enpresari ezarritako isuna, 89.000€-tik 66.581,78€-ra, desberdintasunak sumatu baititu enpresak esandako negozio-bolumenaren eta LEAk kontuan hartu zuenaren artean.

Bigarren epaiak AROS enpresari ezarritako isuna mantendu du. Hala ere, uste izan du LEAk ez duela eskumenik Leioa Kirolak enpresari debekurik jartzeko. Izan ere, LEAren ebazpenak debekatu egin zuen Leioa Kirolak enpresak AROS enpresari kalte-ordaina ematea egindako lanengatik, kontratua bertan behera utzi eta gero. Epaiak esan du Leioa Kirolak enpresaren eskuetan dagoela kalte-ordaina berreikusteko prozedura abiatzea, LEAren ebazpena berretsia izan ondoren.

Lehiaren Euskal Agintaritza izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoei dagokienez.